# ARRIETA



## ARMARRIAREN DESKRIBAPENA

Hondo urdinean urrezko gaztelu bi zerrendan, eta buruan urrezko izarra; bordura gorria eta urrezko hamabi izar ditu.

## AITAMEN HISTORIKOA

Libano de Arrieta deituriko eleizatea, Busturiako merindadekoa. Eleiztar dibiseroak San Martin gotzainaren eleiz-parrokia eraiki eben XII. mendean, eta gerora berreraikia eta zabaldua izan da. Zortzigarren eserlekua eben Batzar Nagusietan. XVIII. mendean eleizaren hamarrenak oso banatuta egozan: Gainkoko Amaren ermitari egokozanetatik hamabirena Mortarako markesarena zan; Libanoko auzuneko etxeen jabeek 5 edo 6 etxetakoak hartzen zituen; eleiza zerbitzatzen eben hiru onuradunen kabildoak 10 edo 12 etxerenak hartzen zituan, eta ganerakoak Urdaibai de Foruaren oinetxeko jabeek, Meñakakoak eta Meñakabatizekoak.



Eleizatearen jurisdikzioan sei ermita egozan: San Paulo, Santa Kurutz, Justo eta Pastor Santuak, Jesus Gurutzefikatua, San Kristobal eta Gainkoko Ama. Azken honetan urtarrilaren 1ean erregidore fidela izendatzen zan, Bizkaian Udalen Legea indarrean ezarri aurretik.

## DESCRIPCIÓN DEL ESCUDO

En campo de azur, en faja dos castillos de oro, y en el jefe estrella de oro, con bordura de gules y doce estrellas de oro.

## RESEÑA HISTÓRICA

Anteiglesia denominada Líbano de Arrieta, perteneciente a la merindad de Busturia. Los feligreses diviseros levantaron, en el siglo XII, la iglesia parroquial de San Martín Obispo, siendo reedificada y ampliada posteriormente. Ocupaba el octavo asiento en las Juntas Generales. En el siglo XVIII los diezmos eclesiásticos quedaban muy repartidos: la doceava parte de los correspondientes a la ermita de Nuestra Señora de Gainco pertenecía al marqués de Mortara, los dueños de las casas del barrio de Líbano llevaban los de 5 ó 6 casas, el cabildo de los tres beneficiados que atendían la iglesia los de 10 ó 12 y las restantes, los dueños de la casa solar de Urdibai de Forua, el de Meñaka y el de Meñakabatiz.

En la jurisdicción de la anteiglesia se hallaban enclavadas seis ermitas: San Pablo, Santa Cruz, Santos Justo y Pastor, Jesús Crucificado, San Cristóbal y Nuestra Señora de Gainco. En esta última se hacía, el 1 de enero, el nombramiento del fiel regidor, antes de que en Bizkaia se pusiera en vigor la Ley de Ayuntamientos.